


ARNASA INZINERADORAREN KONTRAKO PLATAFORMA

“Sortzen dugun zaborren ia % 80 gaur egunean birziklatu lитеkeena da, eta hori ez da utopia”

■ Arnasak 230 artikulu zientifiko bildu ditu inzineradoren ondorioak azterten dituztenak: “Benetan bel-durtzekoa da inzineradorak osasunarentzat zenbat arrisku eta zenbat eratakoak dituen”.

ARNASA plataformak eta Ekologistak martxaneko kideak hitz egin zuten ostegunean Biterin, inzineradora eta zaborren tratamenduei buruz. Pello Lozano Unibertsitateko irakaslea eta Arnasako kideak inzineradoren arriskuak beldurgarriak direla esanaz hasi zuen bere interbentzia: “230 artikulu zientifiko bildu ditugu, EEBB-eko medikuntza aldizkari prestigiosoenetako batek abalatutakoak, eta beldurtzekoa da osasunarentzat ze arrisku planteatzen dituzten”.

Arnasa plataformak azpimarratu zuen badaudela zaborrak tratatzeko beste formulak, hain zuzen ere hiri hondakinen planean azaltzen direnak. Lozanoren esanetan, sortzen ditugun zaborren % 77 gaur egunean birziklatu lитеkeenak dira eta hori ez da inongo utopia: materia organikoa (jan hondarrak), kartoi, bidrioa, latak eta abar. “Horiek denak birziklatu ezkerro, ez da inzineradoraren beharrak”. Aipatu zen Kata-



Jesus Uzkudun aurkezlea, Pello Lozano eta Jaxinto Albizu (Arnasa) eta Kepa Olaiz (Ekologistak).

lunian badirela eskualde osoak (Llobregat ingurua) % 80 berziklatzen dutena eta Europako beste leku askotan ere antzeko portzentajetan dabilzala. Jendeak gehiago kontzentziatu beharra ere nabarmendu zen, eta instituzioak horretan laguntzeko premia ere bai.

Interes ekonomikoak
Urneta mobilizatzea lortu duen plataformaren ustez

interes ekonomikoak eta politikoak daude inzineradora proiektuaren atzean. Arnasaren iritzirako inzineradora Urnietan jartzeko estudioa ez da aurretik hartutako erabaki politikoa justifikatzeko bidea besterik izan.

‘Arnasa’ herrietara zabaldu
Jaxinto Albizuk Arnasa plataformaren berri eman zuen: 35 kide ditu eta 60 kolaboratzaile ditu. Bere esanetan,

klabea da prestakuntza tekniko eta juridiko potentzia izatea, eta funtzionamendu onak erakutsi du atzean inongo partidurik ez dagoela.

Plataforma Gipuzkoako beste herrietara zabaltzeko asmoa badute eta Hernanin ere ikusi zen horretarako bordonatea osteguneko hitzaldian. Pauso hori emateko bilera konbokatu da urtarilaren 13an arratsaldeko 19:30etan Biterin. □

Pelotan Gipuzkoako finalak

GIPUZKOAKO pelota txapelketako finalak jokatuko dira gaur eta batzuk Hernaniko kirolegiko frontoian, 21:00etan. Kadeteetan, Erriopeko Zabala eta Legarretak Hernaniko Ojuel eta Aizpitarteren kontra. Jubenil mailan, Aurrera taldeko Renovales eta Galarragak jokatuko dute Hernaniko Gorrotxategi eta Intxaurrendoko Irazustabarrenaren kontra.

Azken partiduan Erroizeneak Argote bikote duela jokatuko du Bergarako Samaniego eta Gutierrezen kontra. Bestalde, larunbatean herrianarrek beste bi final jokatuko dituzte. Paleta goman, Manzisidor-Martinezek Anoetako Kukuren kontra jokatuko dute, Atan, 17:00etan. Kadeteetan, Ezeiza -Arregik Lazkaoren kontra, Beasainen, 16:00etan. □

Santo Tomasak Hernanin

SANTO Tomas egunaren bueltan ekintzak egiten dira Hernanin. Goizean goiz hasita ikastetxeetan izango dira lehenbiziko ospakizunak: txistor jana, azokak, jokoak eta abar.

Bestalde, Orkolaga auzoan 300 kiloko txaeria egongo da eta goizean sagardoa eta txistorra egongo dira eta arratsaldean disko jartzaileak.

Santo Tomas egunean ber-

tan ere izango da festa Hernanin. Plaza Berrian postua jarriko du San Joan konpartsak goizeko 12:30etan eta arratsaldean 18:00etan. Arratsaldean erromeria izango da. Euria bada Udaletxeko arkupean egingo da.

Santo Tomasetan beste zenbait auzotan ere izaten dira ekitaldiak, Karabelen esaterako. Jubilatu Etxean ere festa izango da igandean. □

Eska ezazu HERNANIKO BERRIAK TXARTELA

HERNANIKO BERRIAK

TXARTELA

eta eraman aterki bat OPARI.

Gabonetan ere, egin zure erosketak Hernanin.

"BERRIAK" HERNANIKO MERKATARI ETA OSTALARI ELKARTEA

Peña

OKINDEGIA JANARIDENDA

Zure eguneroko beharrei erantzuteko, hemen gaude.

Kale Nagusia 19
Tel.: 943 55 23 98
HERNANI

J&T-k Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizue

Kale Nagusia, 9 HERNANI 943 330 582

Musa eta kuota kobratzea igandean Osiñagan

OSIÑAGA auzoan mus txapelketa dute datorren larunbatean. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da Eizmendi sagardotegian eta izen ematea ere bertan egin behar da, txapelketa egunean. Inskripzioa 10 euro da eta lehenengo 4rentzat egongo dira sariak. Bestalde Osiñagako auzo elkartek jakitera eman du urteko kuota kobratza igandean pasako direla. Kuota 10 eurokoa da eta loterian euro bateko partizipazioa bantzen dute eta sesto baten zozketa egin. Norbait etxean egongo ez bada dirua bizilagunari uzteko eskatu du auzo elkartek. □

Espelazioaren aurkako jardunaldiak gaur eta bihar Tilosetan

ESPEKULAZIOAREN aurka gaur eta bihar jardunaldia antolatu dute Hernaniko hainbat gaztek. Gaur eguerdiko 12:00etan prentsurreko eta manifestazioa egingo dute Tilosetan. Arratsaldeko 19:00etan Tilosetatik aterata beste manifestazio bat egingo dute. Gaueko 20:30etan kontzertua izango da Tilosetan, Kapitain Nemo eta Surfing Kaos taldekin. □

‘Emakume atxilotuak’ hitzaldia gaur Andragoton

ESPETXE sistemari buruzko hitzaldiak ari dira egiten Andragoto ateneoan, Ispizua kalean. Gaur Cesar Manzanos UPVko irakasle eta Salaketako kideak emango du hitzaldia emakume atxilotuei buruz, 20:00etan. □

ZINEA BITERIN

‘Dias de futbol’

PELIKULA bakarra botako dute gaur, bihar eta etzi Biteri kultur etxeen, Dias de Futbol. Gaur 22:30etan; bihar, 19:30 eta 22:30etan; eta igandean 19:30etan. □



Karta jokoetako sarituak, kopa, ardo, urdaiazpiko eta gainerako sariekin.

Tute eta mus txapeldunak, Isidro Tobar-Antonio Cano eta Angel Ribas-Ruben Arias, Karabelen

■ Sariak aurreneko hiru bikoteei banatu dizkiete ■ Igande honetan Karabelgo Krossa izango da, goizeko 10:00etan umeak eta 11:00etan helduak.

KARABELGO Belkara auzo elkartean tute eta mus txapeldunak egin eta sariak banatu berri dituzte. Tutean txapeldun Isidro Nozal-Antonio Cano gelditu dira; bigarren, Agustin-Jesus Lopez; eta hirugarren, Julio-Fernando Gaspar. Mu-

sean txapeldun Angel Ribas-Ruben Arias; bigarren, Alberto-Fernando; eta hirugarren, Teo Del Rio-Dani Del Rio.

Etxekoandre sariak Adriana Sanchez, M^a Jesus Ruiz eta M^a Pilar Garcianeztatzan izan dira eta Jesus Mari Lopez solteroarentzat.

Krossa igandean

Belkara auzo elkartea antolatzen duen Krossa datorren igandean da, hilak 21, Karabelen. Goizeko 10:00etan umeek dute proba, 600 metroko eta 11:00etan helduek 8.300 metroko. □

JASOTA BEZALA

Kaixo, Olentzero:

Eñaut naiz, hernaniarra, zazpi urte ditut. Gaur hotz da, nahiz elurra mara-mara aritu espero dut arazorik ez izatea ailegatzeko. Eskolan esan didate oparia jasotzeko ezinbesteko dela gutuna idaztea Olentzerori, horregatik, idazten dizut gutun hau. Gauza anitz dut eskatzeko baina ez dakit nondik hasi, zer ikastolan andereñoari esan nionean opari dexente nituela Olentzerori eskatzeko sekulako txapa sartu zidan kontsumismoari buruz, nik ez dakit arras ondo zer den hori baina, dirudinez, ezin dut eskatu nik nahi dudana, aukeratu beharra daukat zerrenda osoaren artean. (helduek egiten ote dute hau?)

Bi hautatu ditut, bata, metraileta. Amari kontatu diotenean ez dit aurpegia oso ona jarri, ez dit ezetz adierazi nahi izan, baina bere ezpainenako irribarrea desagertu zaio eta gustuko ez dudan aurpegia jarri du, nire ama oso alaia baita. Ez nekien zergatik. Olentzero bakezalea dela aipatu dit, baina gauean ederkia asko egon da bere lagunekin tiroak besterik ez zuen filma bat ikusten!; bestea, haur txikiak eramateko karro bat da, honela, amatxok Xabiertxo eramatzen duenean, nik, nire Txuri-hartzera eramango dut; baina, azken ideia hau ere aitari ez zaio gustatu, ez dit oso ondo argitu zergatik (heldu hauek erotuta daude!). Nire iritziz ondo dago, honela nire

hartza pasiatu, zaindu eta nire hartzaz arduratuko naiz. (Heldu hauek ez ditut ulertzten, "rollo" bat dira nahi dutena egiten dute eta ez dira sekulan eredu izaten!) □

A bai! Bukatzeko, badaukat hirugarren eskaria Olentzeroren-tzat, liburu bat, tira! Egia esan nik ez dut libururik nahi, nire andereñoik baizik. Nire andereño mundiala da. Dena den, gogoko dut izan duen idea, zer horrela gurasoekin irakurtzen arituko naiz opor egun hauetan eta hori da munduan gehien gustatzen zaidana, nire gurasoekin irakurtzea. Pott handi bat guztioi.

Jone Egaña
STEE-EILAS

ADARRA
ETXE TRESNAK S.A.
Txirrita kalea 11
Tel. 943 55 04 27
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

ZIMAK
ILEAPAINDEGIA
Iturregi, 2 - 1ºB
Hernani
Tel.: 943 556556

HERNANI TABERNA
Tilosetako taberna berria
- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak
Terraza, telebista,...
HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -
943 55 44 76 - HERNANI

AMARI
TR. R. TABERNA
ITSASDEGI
FRESKO ETA IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

HITZ BITAN

✓ KRONIKAKO EGUTEGLIA

11 lekutan salgai.

Kronikak ateria du 2004-ko kalendarioa eta salgai dago nahi duenarentzat 2 euroan, Dobera Euskara Elkartean, Hernaniko Kronikan, Zinkoenea, Konde eta Plaza Berriko kioskotan, Sebasen, Iruretagoienan eta Dorronsoro, Bikain eta Antziola okindegietan. 2004ko egutegiak argazki zaharrak eta berriak konbinatzen ditu eta Plaza Berria, Lizeaga, Kale Nagusia, Biteri kultur etxea... iku-si litezke.



✓ BARRIKOTEAK

Peña Otañon gaur eta Etxeberrin bihar. Peña Otaño elkartean barrikotea dute gaur, afariarekin. Biher Etxeberriko Lagun Artea elkartean izango da.

✓ ERRAPIA TALDEA

Errapia artista taldearen festa bihar. Errapia Kultur Elkarteko artistek festa antolatu dute biharko Zikuñagako eskola zaharrean duten lokalean, Zikuzulon. Festa egun osokoa izango da: 10:00etan, Trikitilariak, haur jolasak eta marraskiak, ipuin kontaketa, mural eta graffiti margotzea; 16:00etan, bertsolariak, 16:15etan, Roberto Yaben musika emanaldia; 16:30etan txalaparta; 17:00etan Jon Zabaleta animazio bideoak, 17:45etan poesia; 18:00etan Morau kantari; 18:30etan antzerkia; 19:00etan txistulariak; 19:00etan jantzi desfilea eta 20:00etan dantza festa. Egun osoan zehar Anastasia Leundaren eta Errapiako beste artisten erakusketa izango da.

✓ BERRIAK ELKARTEA

Kale animazioa gaur. Gabonak datozena-eta kale animatzeko ekintzak antolatzen ari da Berriak komertziantz eta ostalari elkartea. Gaur txaranga ibiliko da kalez kale, arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara. □

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 Tel. 943 336077
- Gauez: Rodriguez Lasarte. Nagusia 42 Tel. 943 361774

MENABI-k INSTALAZIO BERRIEN ATEAK ZABALDU DITU.



Menabi, Škoda Kontzesionario Ofizialak, erabat berritu ditu bere instalazioak eta inauguratzen ditu. 1500 m² baino gehiago Škoda-rentzat bakar-bakarrik: auto berri eta erabilien erakustokia, tailerra, errekanbioak eta bezeroentzako aparkalekua.

Ospatzeko, prezio bereziak gama osoan abenduaren 31 arte.



MENABI Txingurri pasealekua, 26 · Tel. 943 40 42 43 · Donostia

Aldaba joka

Hernani: ahozko historia txikia

Egilea: Urko Apaolaza

Argitaratzailea: **dobEra**
EUSKARA ELKARTEA

Salgai:
Lete, Sebas eta Leokadistin
15 euro

Doberako baxkide eta
Kronikako laguntzaileentzat
12 euro (Doberan - Larramendi 11)

